



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/10

Ogasuneko Foru Diputatuak modu positiboan balorau dau finantza erakundeek PFEZren 134.000 aitorten egiteko emoten daben laguntzea

Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak, sei finantza erakundegaz, errentaren eta ondarearen aitortenak egiteko orduan herritarrei laguntza emoteko indarrean dagon lankidetzarako hitzarmenaren xehetasunak azaldu ditu gaur goizean. Lankidetzaz hori 1994an hasi zan, Bizkaiko lurralde historikoan baino ez da emoten eta Aldundiko arduradunak oso modu positiboan balorau dau. Iruarrizagak adierazo dauenez, PFEZren azkenengo kanpainan 134.000 aitorten aurkeztu ziran bide hori erabilita.

Aldundiko arduraduna Batzarretako EH Bildu taldeak eskatuta agertu da Bizkaiko Batzar Nagusietako Finantza eta Ogasuneko Batzordearen aurrera. Talde horrek, errentaren eta ondarearen kanpainarako finantza erakundeakaz sinatuta dagon hitzarmenari jagokon aurreko urteko gastuaren banaketeari edo aitortenak euskeraz bete ahal izateko bermeari buruzko informazioa eskatu dau, beste gai batzuen artean.

Iruarrizagak zehaztu dau sei dirala erakunde laguntzaileak (Kutxabank, Laboral Kutxa, BBVA, Banco Santander, Banco Sabadell eta CaixaBank), eta 300 bulego inguru eskintzen deutseezala herritarrei, euren aitortenak aurkezteko. Horreen guztien bitartez, igaz 134.000 aitorten baino gehiago aurkeztu ziran, eta 3.500 baino gehiago izan ziran euskeraz aurkeztu ziranak.

Ogasun Sailak 1.676.454,92 € ordaindu ebazan horregaitik, eta aurton barrikuntzak sartu dira, egiaztagiriak eskaneetako aukerea eta finantza erakundeei eskinitako zerbitzuarengaitik ordaindu beharrekoa kalkuletako taula barria. Foru Diputatuak adierazo dauenez, 1994tik egiten ari dan esperientzia “oso positiboa” da, zerga arloko betebeharrak beteten laguntzen dauen zerbitzu osagarria dalako. Estatu mailan, zerbitzu hori Bizkaian baino ez da eskintzen.

Zergak ordaintzearen ganeko sensibilizazio kanpaina

Beste alde batetik, José María Iruarrizagak herritarren zerga arloko betebeharrakaz erlazionautako beste itaun bati be erantzun deutso, Bizkaiko Talde Popularreko Javier Ruiz batzordekideak zergak ordaintzearen ganeko sensibilizazio kanpainari buruz egindako erantzun-eske bati erantzunez. Batzordekideak, herritarrak arlo horretan kontzientzietako Ogasun Sailak aurrera daroazan ekimenen gainean galdetu dau.

Horri jagokonez, Aldundiko arduradunak hainbat jarduketa ildo dagozala azaldu dau, persona fisikoei eta juridikoei zuzenduta, “mezu nagusi bitan zentrauta: lehenengoa, ez dagola betebeharr fiskala ez beteteko atxakirik; eta bigarrena, betebeharr hori beteten ez dauenak, ordaindu egiten dauela”. Foru Diputatuak beste ekimen batzuk be jarri ditu balioan, DBHko 4. mailatik aurrerako ikasleei zuzendutako hezkuntzako moduluak, ikasturte honetan 62 ikastetxera heldu diranak, edo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ogasun Sailak urtero komunikazino kanpainetan inbertiduten dituan 175.000 €-ak. Itauna egin dauen batzordekidearen eretxiz, Foru Ogasunak “informazino asko emoten dau, baina ez da asko ahalegintzen sensibilizazinoan, zergak zertarako ordaintzen diran eta ekarten dituen onurak azaltzen”.

Estaduko Loterien eta Apustuen Bizkaiko ordezkariak

Podemos Bizkaiak aurkeztutako eguneko gai zerrendako ekimen bi baztertu egin diranez, Batzordeko eguneko gai zerrendea EH Bilduk eta Talde Mistoak Estaduko Loterien eta Apustuen Bizkaiko ordezkariaren, horren gaur egungo errealidadearen eta aurreikuspenen gainean egin dituen eskari bigaz osotu da. Horri jagokonez, José María Iruarrizagak azpimarratu dauenez, “hori da, hain zuzen be, ordezkariak bat, bere salmenten arabera komisino bat jasoten dau eta ezin ditu planak edo jarduerak ezarri, horreen eskumenak Estaduarenak diralako”. Azaldu dauenez, 23 personak osatutako lantaldea dauka, eta aurton 1,7 milioi euroko aurrekontua. Bitartekariak lanak egiten ditu Quiniela, el Quinigol, Loteria Primitiva, Bonoloto, Gordo de la Primitiva, Euromillones eta Apuesta Hípica izeneko txartelak be saltzen dituan eta 285 saltokik osatzen daben sare komertzialagaz.

Ordezkaritzak dituan galeren eta apustu horreek kudeetan dituan estaduko erakundeagaz dagon negoziazioaren ganeko informazino eskariei erantzunez, Iruarrizagak esan dau beherako joera erakusten daben modalidadeak dirala, *online* jokoa dala eta, eta jasotako komisino ez dala nahikoa jarduera errentagarria izan daiten. Halanda be, esan dauenez, bere Saila ahalik eta komisinorik hoberena lortzen ahaleginduko da, Madrilegaz egin behar dan negoziazioan, baina ez da inoiz soldata jeistea edo zerbitzua pribatizatea planteau, Bizkaia, Bartzelonagaz eta Jaenagaz batera, zerbitzu horrek publikoa izaten jarraitzen dauen probintzia bakarra dan arren.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
10/05/18

El Diputado Foral de Hacienda valora positivamente la colaboración de las entidades financieras para la confección de 134.000 declaraciones de IRPF

El Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha explicado esta mañana los detalles del convenio de colaboración con seis entidades financieras para asistir a la ciudadanía en la confección de sus declaraciones de renta y patrimonio, una colaboración que data de 1994, que solo se registra en el territorio histórico de Bizkaia, y que el responsable foral ha valorado muy positivamente. Iruarrizaga ha señalado que en la última campaña de IRPF se presentaron un total de 134.000 declaraciones a través de esta vía.

El responsable foral ha comparecido en la Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia a solicitud del grupo juntero de EH Bildu, que había solicitado información sobre aspectos como la distribución del gasto correspondiente al convenio de colaboración con las entidades financieras en la pasada campaña de renta y patrimonio o las garantías para poder confeccionar las declaraciones en euskera.

Iruarrizaga ha detallado que son seis las entidades colaboradoras (Kutxabank, Laboral Kutxa, BBVA, Banco Santander, Banco Sabadell y CaixaBank), que ofrecen a la ciudadanía en torno a 300 oficinas desde la que poder elaborar y presentar sus declaraciones. A través de todas ellas, el pasado año se presentaron más de 134.000, de las que algo más de 3.500 fueron confeccionadas en lengua vasca.

El Departamento de Hacienda abonó un total de un total de 1.676.454,92€ por este concepto, y de cara a este año se han introducido novedades como la posibilidad de escanear los justificantes, así como una nueva tabla de cálculo de retribuciones a las entidades financieras por el servicio prestado. El Diputado Foral ha calificado como “muy positiva” una experiencia que se viene llevando a cabo desde el año 1994, por constituir un servicio complementario que facilita el cumplimiento de obligaciones tributarias y que, en el ámbito del Estado, solo está disponible en Bizkaia.

Medidas de sensibilización para el pago de impuestos

Por otro lado, José María Iruarrizaga ha respondido a otra cuestión relacionada con las obligaciones tributarias de la ciudadanía, en este caso una pregunta oral planteada por el juntero del Grupo Popular Vizcaíno Javier Ruiz sobre medidas de sensibilización para el pago de impuestos. El apoderado ha preguntado por las iniciativas del Departamento de Hacienda destinadas a concienciar a la ciudadanía en esta materia.

A este respecto, el responsable foral ha expuesto que existen diferentes líneas de actuación, dirigidas tanto a personas físicas como jurídicas, “centradas en dos mensajes fundamentales: el



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

primero que no existen excusas para no cumplir con la obligación fiscal, y el segundo que quien no cumple, lo paga”. El Diputado Foral también ha puesto en valor iniciativas como los módulos educativos para alumnos a partir de 4º de la ESO, que en el presente curso lectivo han alcanzado a 62 centros, o los 175.000€ que el Departamento de Hacienda invierte anualmente en campañas de comunicación. Para el juntero autor de la pregunta, la Hacienda Foral “facilita mucha información, pero se esfuerza poco en sensibilización, en explicar el por qué de los impuestos y los beneficios que reportan”.

Delegación en Bizkaia de Loterías y Apuestas del Estado

Con la retirada del orden del día de dos iniciativas que habían sido presentadas por Podemos Bizkaia, el orden del día de la Comisión se ha completado con sendas solicitudes de EH Bildu y del Grupo Mixto en torno a la Delegación de Loterías y Apuestas del Estado en Bizkaia, su realidad actual y sus previsiones. A este respecto, José María Iruarrizaga ha recalcado que “se trata precisamente de eso, de una delegación, que percibe una comisión en función de sus ventas y que no puede establecer planes o actividades, ya que son competencia del Estado”. También ha explicado que cuenta con una plantilla de 23 personas y un presupuesto para este año de 1,7 millones de euros, y que intermedia con una red comercial de 285 puntos de venta de boletos de la Quiniela, el Quinigol, Lotería Primitiva, Bonoloto, Gordo de la Primitiva, Euromillones y la Apuesta Hípica.

Ante los requerimientos de información en torno a las pérdidas que registra la Delegación y a la negociación con la entidad estatal que gestiona estas apuestas, Iruarrizaga ha señalado que se trata de modalidades en declive frente al juego *online*, y que la comisión percibida es insuficiente para rentabilizar la actividad. Aún así, ha asegurado que su Departamento se esforzará en lograr la mejor comisión posible en la negociación con Madrid, pero que en ningún caso se ha planteado rebajar sueldos o privatizar el servicio, a pesar de que Bizkaia constituye, junto con Barcelona y Jaén, los únicos casos donde sigue siendo público.